



**Arartekoaren 2019R-2550-18 Ebazpena, 2019ko abuztuaren 1koa. Horren bidez, Artziniegako Udaleri gomendatzen zaio egindako eskaerari erantzun diezaiola, eta dagokion administrazio espedientea abiaraz dezala Barratagurengo auzoko Tejerako eraikuntzen eta Mendieta auzoko Santo Tomas elizaren kontserbazio egoera ebaluatzeko.**

#### Aurrekariak

- Herritar batek Arartekoan adierazi du Artziniegako Udalak ez diola erantzun udalerrri horretako bi higiezin kontserbatzeko eskaera bati; Tejerakoa, Barratagurengo auzoan, eta Santo Tomas eliza, Mendieta auzoan.

Zehazki, kexagileak esan du, 2018ko ekainaren 12an, udal horri esku hartzeko eskatu ziola higiezin horiek eskatzen duten kontserbazioko obrak gauzatzeko agindua eman dadin. Idazkian aipatu duenez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zentroak txosten batean aitortu du interesgarria dela udal horri helaraztea higiezin horiek kontserbazio egoera txarrean daudela. Higiezin horiek udaleko katalogoaren barnean "kontserbazio espezifikoko" moduan sartuta daude. Txostenean jasotzen denez, udalaren eskumena da jabeei eskatutako kontserbazio eta mantentzeko neurriak gauzatzeko aukera erabakitzea, hirigintza arloko legeriak ezarritako baldintzetan.

Kexagileak dio zenbait hilabete igaro badira ere, haiek betetzen direla bermatzeko ezarritako neurriei buruzko udalaren erantzunik ez duela eskuratu.

- Erreklamazio horri dagokion izapidea emateko asmoz, 2018ko urriaren 16an, Arartekoak Artziniegako Udalera jo zuen honi buruzko informazioa biltzeko: Barratagurengo Tejeraren eta Mendieta Santo Tomas elizaren kontserbazio eskaerari buruz egindako izapideak.





Artziniegako alkateak idazkia igorri zuen 2019ko apirilaren 10ean, eta honako hau azaltzen da bertan:

*"En contestación a su escrito por la presente se comunica que en referencia al expediente 2550/2018/QC en cuanto a la solicitud de conservación de la Tejera Barrataguren y la Iglesia de Santo Tomás de Mendieta indicar que son propiedades particulares, alejadas de núcleos urbanos y en la que no hay actualmente un tránsito de personas en los alrededores.*

*La carga de trabajo y la limitación de los recursos implica que haya que priorizar en otras acciones, por lo que, sin olvidarlo, actualmente la prioridad de trabajo del área técnica está en otras actuaciones en el municipio"*

Informazio horri erreparatuta, bai eta kexagileak berriro arrazoitutako gainerako inguruabarrei ere, eta horien edukiak aztertu ondoren, honako gogoeta hauek egin nahiko genituzke:

### Gogoetak

1. Erreklamazioaren xedea da Artziniegako Udalari egindako eskaerari erantzun ez izana adieraztea udal horrek abiaraz dezan, dagozkion hirigintzako eskumenak gauzatu, hirigintza arloko espediente, Barratagurengo Tejeraren eta Mendieta Santo Tomas elizaren kontserbazio nahiz segurtasun egoera ebaluatzeko espediente, alegia.

Artziniegako Udalak azaldu du salatutako jarduna ezin izan dela orain arte kontuan hartu, lan karga handia eta baliabideak mugatuak izan direlako. Nolanahi ere, txostenak ez du ematen kexagilearen eskaerari buruz udalak emandako erantzunen berririk, eta ezta gai horri buruz egindako administrazio jarduketan berririk ere.

2. Oro har, aintzat hartu behar dugu herri-administrazioek, herritarrekin dituzten harremanetan, administrazio prozeduran bideratu eta jasotako izapideten gaineko informazio egokia bermatu behar dutela.

Administrazio prozedura orokorrak administrazio jardura antolatu, izapidetu eta fiskalizatzeko kontuan hartu beharreko jarraibideak xedatzen ditu.





Administrazio izapideak dauden eta herritarrei benetan erantzuten zaien bermea Espainiako Konstituziotik bertatik dator (103.1. eta 105. artikulua), eta herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidean sartzen da (eskubide hori Lisboako Itunak ezarritako Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua jasotzen du).

Administrazio ona izateko eskubidearen barruan, honako hauek daude: aurkeztutako idazkiak jaso izanaren agiria, horiek ofizioz bultzatzea eta azaldutako kontuei zentzuzko epean erantzuteko betebeharra.

3- Oraingo honetan, kexagileak Artziniegako Udalari esku hartzeko eskatu zion udal katalogoaren barneko bi eraikin pribatu mantentzeko eta kontserbatzeko hirigintza arloko betebeharrak betearazte aldera.

Hirigintza arloan, herri-administrazioak eskaerei erantzuteko dagokien administrazio prozedura betetzera behartuta daude.

Horrenbestez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearekin (2/2006, ekainaren 30ekoa) bat etorriz, hirigintza diziplinako ahalmenak gauzatzea agintarien eta funtzionarioen betebeharrak utziezina da. Zehazki, hauxe jasotzen da bigarren idatz zatian:

*“Titulu honetan arautzen diren ahalenez baliatzeari ezingo zaio uko egin. Horretarako, agintari eta funtzionarioak behartuta daude ahal horietaz baliatzeko ezarritako prozedurak hastera eta izapideak egitera, kasu bakoitzerako aurreikusitako epearen barruan. Eginbehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna ekar dezake”.*

Erantzuteko eta hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko neurri egokiak ezartzeko betebeharra jabetzaren gainean izan daitezkeen desadostasunetatik kanpo geratu behar dira. Partikularren jarduera gabeziak ezin dezake hirigintza legezkotasuna babesteko funtzio publiko hori gutxietsi.

Horregatik, udal administrazio horrek, kasu bakoitzean ezarritako epeetan, agindu zaizkion ikuskaritza, egiaztapen eta kontrol ahalmenak gauzatzeko ezarrita dauden prozedurak hasi eta izapidetu behar ditu.





4-.Hirigintza-diziplinaren arabera, lursailen jabeek segurtasun-baldintza egokietan izan behar dituzte lursailak, osasungarritasunerako, apaintasun publikorako eta pertsonentzako zein gauzetarako arriskuak saihesteko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik esleitzen da eskumen hori. Xedapen horrek, 2/2006 Legearen 203. artikuluari dagokionez, adierazten du herri-administrazioek betearazteko aginduak emateko betebeharra dutela jabeei honako hau ezartzeko: eraikin eta eraikuntza narriatuak edo bidezko erabilerarako baldintza eskasetan daudenak konpontzeko, kontserbatzeko eta birgaitzeko obrak gauzatzea.

Oraingo honetan, udal administrazioaren eskumena da espediente egokiaren bitartez eginbeharra beteko dela bermatzea, eta, behar diren txosten teknikoak bildu ondoren, higiezinaren jabeak betearazpen-aginduak ematea. Betearazpen-aginduak hirigintza-arloko legerian xedatutako prozedurarekin bat etorritik ezarri dira, eta betearazi beharrekoak dira. Arrazoirik gabe betetzen ez badira, administrazioak, betetzen direla bermatzeko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 203. artikuluan xedatutako neurriak har ditzake (betearazpen subsidiarioa, hertsapen-isunak, etab.).

Nabarmendu behar da eraikinen kontserbazio eta birgaitzea kontrolatzeko eginkizun publikoa betetzea ezin dela inoiz ere behartuta dauden pertsonen borondatearen edo ondasunaren titulartasunari lotutako beste inguruabar edo auzien menpe utzi.

Testuinguru horretan, higiezinak kontserbatzeko eta mantentzeko legez eska daitezkeen eginbeharrak bete daitezzen emandako betearazteko aginduei jarraitzen zaiela bermatzeko eskumen utziezina du udal administrazioak.

Aurrekoa kontuan hartuz, bistan da beharrezkoak diren giza baliabideen gabeziak edo une berean hainbat eskaera bilduta egoteak erantzuna araudian ezarritako epean ematea eragotzi dezaketela.





Dena den, eskatzaileari hauen berri eman behar zaio: eskaera hartu izanaren agiria, orain arte egindako jardunei buruzko informazioa ematea eta horri buruz dauden aurreikuspenak.

Halaber, adierazitako legezko betebeharrak bazter utzi gabe, eskatu beharra dago bidalketa hori arintzeko formulak bila daitezen, edo, bestela, parte-hartzeko beste mekanismo batzuk erabil daitezen.

5. Azkenik, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak (2019ko maiatzaren 29tik, indarrean) berriki onartutako berariazko aurreikuspenak aipatzea komeni da, Oinarrizko Babesa duten Ondasunen EAEko Erregistroan inskribatutako kultura ondasunak kontserbatzeko betebeharra arautzeko asmoz.

Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak (maiatzaren 9ko 6/2019) 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondasun higiezin bat oinarrizko babeseko kultura ondasun izendatzen da udaleko hirigintza plangintzan indarrean dauden dokumentuen katalogoetan sartzearen ondorioz. Xede horrekin, Eusko Jaurlaritzako hirigintza arloko sail eskudunak kultura ondarearen arloko sail eskudunari udaleko hirigintzako plangintza onartzeko ebazpenen berri emango dio. Horrenbestez, adierazpen horren ondoren Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen EAEko Erregistroan inskribatuko da.

Oinarrizko babesaren duten kultura ondasunen araubideari dagokionez, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak (maiatzaren 9ko 6/2019) 45. artikuluan aipatzen da udalaren hirigintzako araudian ezarritakoa izango dela *"ondasun horiek inola ere ezin izango dira eraitsi, ez osorik, ezta partzialki ere"*.

Bestalde, 29. artikulua agintzen duenez, Oinarrizko Babesa dute Ondasunen Erregistroan inskribatutako kultura ondasunen jabeak *"behartuta daude hirigintzaren eta kultura-ondarearen alorrean indarrean dagoen legediak ezarritakoa betez ondasun horiek behar bezala kontserbatzera, zaintzera, babestera eta erabiltzera, ondasunen osotasuna bermatzeko eta galdu, suntsitu edo hondatu ez daitezen"*.





Titularrek kontserbazio betebeharrak betetzen ez badituzte, foru aldundiek, ofizioz edo kultura ondarean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak hala eskatuta, agindu ahalko dute *“Kasuan kasuko ondasuna ez galtzeko edo bertan egindako kalteen ondorioak ezabatzeko beharrezkoak diren neurriak betearaztea”*. Honako hau ere ezartzen da: foru aldundi eskudunak beharrezkoak diren esku-hartzeak zuzenean egin ahalko ditu (atzeraezinak direnak) ondasunaren osotasuna bermatze aldera.

Horregatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b). artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau adierazi nahi dugu:

#### Gomendio

Artziniegako Udalari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak (ekainaren 30eko 2/2006) 199. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako izapideei eta epeei jarraituz, egindako eskaerari erantzun diezaion eta dagokion administrazio espedientea abiaraz dezan Barratagurengo auzoko Tejerako eraikuntzen eta Mendieta auzoko Santo Tomas elizaren kontserbazio egoera ebaluatzeko.

